



OINARRIZKO BALIABIDEAK

AEB enpresarekin aurrera jarraitzeko, helburu batzuk lortzea beharrezkoa da. Helburu horiek puntu ezberdinetan sailkatzen dira, hala nola:

- Giza Baliabideak:
 - Erakundeak bere helburuak lortzeko behar dituen langileak hautatu, kontratatu, prestatu, erabili eta atxikitzeaz arduratzen den kudeaketa sistema edo prozesua aipatzeko ere erabiltzen da.
- Finantza-baliabideak:
 - AEB enpresa finantzatzeko hainbat iturri aurkitu behar ditugu, kostua, interesak eta epea kontuta hartuta.
- Baliabide materialak:
 - Enpresa baten ekoizpen-prozesua egiteko behar diren lehengaiak, erremintak, makinak, ekipa eta elementu fisiko guztiak dira.

Gure enpresaren produktuak saldu ahal izateko, hainbat gauza hartuko genituzke kontuan, adibidez, bezeroen arreta erakartzeko irudi ona ematea enpresa deigarriagoa izan dadin.

Horrez gain, labur eta zehatzak izan nahi dugu, asper ez daitezen, hau da, zuzenean eskaintzen duguna esatea.

Zerbitzuaren salmenta errentagarrigoa izan dadin, katalogo deigarriak izango genituzke, interes gehiago lortzeko eta konbenitzeko asmoz.

Diru-laguntzak

Diru enpresak gehiago sortzeko edo errazago hazteko ematen da. Diru laguntza hauek ez dira bueltatu behar eta oso lagungarriak dira enpresarekin hasteko.

AEB enpresa sortzeko, dirua behar dugu, beraz, finantziatzeko moduak aurkitu beharko ditugu. Hala nola, diru laguntzak; hauek Eusko Jaurlaritzak sortzen ditu.

AEB enpresak, Eusko Jaurlaritzari proiektu bat aurkeztu eta azalduko dio. Hauek erabakiko dute diru laguntzak ematea ala ez. Haien kantitatea erabakitzen dute, normalean ez dute ematen eskatutako kantitate osoa, zati bat baizik. Enpresak motaren eta adinaren arabera sailkatzen dira.

Mailegua

Mailegua finantza-eragiketa bat da. Bankuak diru-kopuru jakin bateko mailegua ematen dio enpresari, eta enpresak ardura hartzen du eskatutako zenbatekoa itzultzeko epe batean, interesak eta komisioak gehituta.



AEB enpresak erabili ditzazkeen mailegu motak:

- **Kreditu komertziala:** Ezusteko bat izan ondoren eta zorrak ordaintzeko dirua behar izanez gero, mailegu hau erabiliko genuke.
- **Hipoteka-kreditua:** Lokala ordiantzeko hipoteka bat eskatuko genuke, normalean, 20-40 urteetan ordaintzen da.
- **Mikrokreditua:** Gure enpresa hasieran aurrera ateratzeko erabiliko genuke. Erraztasuna mailegua lortzeko, baina berandutze-interes handiak ditu.
- **Enpresa-kreditua:** Gure enpresako proiektua bultzatu ahal izateko erabiliko genuke. Gainera, diru kantitate handia eskaintzen digu eta nahiko erraza da mailegu bat lortzea.

Kapitala

Kapitalaren helburua, jarduera ekonomikoaren edo dirua inbertitzen den tresna finantzarioaren gainean, irabaziak edo interesak lortzea da. Haren ezaugarri nagusia, balio handiagoa sortzeko erabil daitekeen faktorea da.

AEB-ko enpresako hasierako kapitala oso garrantzitsua da, enpresa ondo joateko. Kooperatibak ez dauka legez kapital minimorik, bakoitzaren ekarpenak enpresaren estatutuetan ezarritako dugu.

Inbertsoreak

Inbertitzaileak oraingo aberastasunaren gastu edo kontsumoari uko egiten dioten pertsona fisiko edo juridikoak dira, proiektu edo enpresa batean jarriz, etorkizunean errentagarritasuna lortzeko.

Gure enpresak inbertsoreak bilatuko ditu proiektua finantzatzeko. Inbertsoreak kapitala emango digu enpresa aurrera eramateko, gero, ateratako etekinekin dirua bueltatuko diogu.

Helburuak:

- **Inbertitzaile estrategikoa:** Inbertitzen duen enpresari balioa eransteko helburua dute inbertsio horiek.
- **Inbertitzaile finantzarioa:** Inbertitzaile horren erabakien helburua, hasierako inbertsioarekin epe labur eta ertaineko errentagarritasuna lortzea da.